

NORANTZA

JESUS ARGOTE

BAGARE EUSKAL TOKIKO KIDEA

«Oporrak euskara hutsean pasatzeko aukera eskaintzen dugu»

Eslovenia eta Kroazia dira Gasteizko Bagare euskal tokiak oporrak euskara hutsean pasatzeko eskaintzen dituen lurraldeak. Abuztuaren 12an atera eta 27ra bitartean, oporretan, euskara izango da protagonista.

AMAIA MUNDIÑANO

Gasteizko Bagare euskal tokiak hamabi urte daramatza kultur ekimenak eta euskararen aldeko egitasmoak aurrera eramaten. Oraingoan, oporretan ere euskaraz egiteko aukera eskaintzen du elkarteak.

Zein izan zen Bagare euskal tokiak sortzearen arrazoia?

Gasteizen euskarak pairatzen zuen egoera ahula izan zen Bagare euskal tokiak sortzera animatu gintuena. Izan ere, euskaraz oso ekimen gutxi antolatzen ziren, eta gure hizkuntzan edozer gauza egiteko garaian, aukerak oso urriak ziren. Horren aurtean, duela 12 urte inguru, elkarte bat sortzea erabaki genuen. Euskal toki hau, elkarte gastronomikoa izateaz gain, euskal kulturaren aldeko ekimenak prestatzen dituen elkarte bat da; euskara dugu oinarri.

Antolatut duzun azken ekimena oporrak euskaraz pasatzeko eskaintza da. Zein da ekimen honen xedea?

Egitasmo hau aurrera eramaten dugun lehenengo aldia ez dela esan beharra dago. Duela urte ba-

Eslovenia eta Kroazia dira aukeraturako herrialdeak. Zein da helburua?

Eslovenia eta Kroazia herrialde interesgarriak eta erakargarriak direla pentsatzen dugu. Historia handia duten bi herri gazte dira eta zuzenean hainbat gauza ikusteko aukera ederra ematen dute: gazteak nola antolatzen diren, guduak zer-nolako aztarnak utzi dituen... herri hauek dituzten gune zoragarriez gain, noski. Bestalde, egitasmo honen helburuak hiru direla esan genezake. Batetik, euskara, zentzurik zabalenean, mundura zabaldu nahi dugu. Bigarrenik, euskaldunei, berriei zein zaharrei, oporrak euskara hutsean pasatzeko aukera eman nahi diegu, urtean zehar eus-

karaz aritzeko zailtasunak dituztenci hori egiteko aukera eman. Eta azkenik, bidaia agentziei euskaldunek osatutako taldeekin bidaia antolatzeko badagoela erakutsi nahi diegu, hor merkatu bat dagoela frogatu.

Oporrak euskaraz pasatzeko behar hori sumatu al duzue jendearen artean?

Bai, halaxe da. Jendeak oporretan ere euskaraz hitz egin nahi du. Gero eta bidaia antolatut gehiago dago, baina taldeen gutxiak euskaldunak izatea oso zaila izaten da. Hori dela eta, lehen esandakoa kontuan hartuta, gure nahia dotozen urteetan euskaldunei zuzendutako itereak bidaia antolatzailerik euren antolatzeko da. Hau da, antolatzen dituzten bidaia gutzien artean euskaldunak bilduko gaituen eta gure hizkuntza oporretan erabiltzeko aukera emango diguten bidaiaik proposatzea.

Proposamena Euskal Herri osoan zabaldu al duzue?

Bai. Ekimen honetan ibiltari bidaia agentziak lagundu dugu. Zentzu honetan, agentzia honek bere bideak erabili ditu egitasmo hau zabalatzeko garaian. Bestalde, gure bideak erabili ditugu eta Euskal Herriko euskara talde guztietara jotzen saiatu gara. Egokiena 30 pertsonako taldea osatzea dela uste dugu. Oraindik ere badago lekua, eta animatzen denak lehenbailehen 945.25.10.84 zenbakira deitu beharko du. Dena prest dago dagoeneko. Bestalde, oporretan itzuli eta eguneroko martxan, ditugun lan ildoak jorratzen jarraituko dugu.



Paulino Onbe

Zirroka



Txillardegi

Golshiri

Golshiri iraniar idazle famatu bil da. 63 urte zituen.

Ez nuen ezagutzen. Aitor diuzet. Eta gaur arte ez dut beraren libururik irakurri.

Baina orain, benetan, frantsesez edo ingelesez egiteko asmo zindoa dut.

Isfahan-en langile familia apal batean jaioa, persieraz dagoen idazlerik handiena omen da. Ingeles emakume batekin ezkondua, aisa idatz zitzakeen bere libururik hizkuntza unibertsal horretan. Baina bere herriaren hizkuntzaz egiteko deliberoa hartu zuen aspaldi.

1968an kaleratutako "Ehtejab Printzea" zinemara eramanen izan da; eta arrakasta gaitza bildu bide du.

Bere bizian barrena bi aldir gertatu zaio Golshiri-ri bere herriaren eskubideen aldeko borroka egin behar izatea. Shah-ren diktaduraren aurka aurrenik, eta islamdar fundamentalismoaren kontra 1979az geroztik.

Eta bere luma aberatsa erabili du ausarki, arrisku larriak hartuz. Idazleen Elkarte bat antolatzen ere saiatu izan da, isilpean. Eta bere bi kide maita, zerbitzu sekretuen hitzailerik hilak ikusi ditu.

Eta kanposantuan, bazterrak kizkiltzeko moduan mintzatu da agintearen kontra, juxtu gorpua hilibiratzekoan; eta politzia zi zekularnik.

Aurpegia eman du Golshiri-ri behin eta berri.

Eta, zer nahi duzue? Golshiri-ren kastako idazleak nahiago ditut nik, hemen oso modan eta oso maiz txalotutak diren idazle koldar batzuk baino.

AITZINDARIAK

KOXEP GARAT



IRJULTZA URTEAK: FRANTZIARAK ASAMBLEAK BIZIARNASAK, BAIONAK GASKOINAK ETA EUSKALDUNAK DEPARTAMENDU BEREAN SARTU NAHI DITU. LAPURDIKO DIPUTATUEK BILTZARRAREN ARREKIBU EKARRI DUTE PARISERAT

GARATEK 1790ean:

J'AI UN ORDRE EXPRES DE MES COMMITANTS, RENDU A L'UNANIMITE DE LEURS VOIX, QUI M'IMPOSE DE PROTESTER EN LEUR NOMME CONTRE TOUT DECRET QUI LES REUNIRAIT AU BEARN !!!

SENATORE KARGUTIK, IPAR ETA HEGO EUSKALDUNAK BATUKO LITUZKETEEN 2-3 DEPARTAMENDU ESKEINI DIOZKA NAPOLEONI:

Il conviendrait surtout d'être très sévère pour ne faire entrer dans ces départements que de vrais Basques parlant cette langue; je croirais très convenable de faire porter l'enseignement des écoles publiques sur la langue basque

KONBENZIOEAK ZUZENBIDE MINISTRO KARGUA EMAN DIO, ETA TEMPLEKO PRESONDEGI RAT JOANIK, LOUIS XVI (NAFRARAKO V) ERREGEA RI HERIO ZIGORRA DIO KOMUNIKATU...



Les basques n'y joueront jamais un grand rôle s'ils ne réunissent pas leur population, leurs talents, leurs moyens sous une même puissance. Et pour effacer toutes les différences que la France et l'Espagne ont pu introduire parmi ce peuple, il faudrait composer chaque département des parties espagnoles et françaises mêlées ensemble. La Basse Navarre et la Navarre qui toutes les deux sont basquaises, off